

)

## **2023ko URTARRILAREN 31ko OHIKO OSOKO BILKURA** **LEHEN DEIALDIA**

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hogeita hamaikako hemezortziak eta hogeita hamarrean, Artzibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla  
Juan Jose Echavarren Salvador  
Garoa Gartziandia Agirrezabala  
Carlos Iriarte Iraceburu  
Francisco Javier Erro Remirez

Idazkaria: Mainer Muguiro Perez

Alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman ondoren gai zerrendako gaiei ekin zaie, hona hemen:

### **1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.**

2022ko azaroaren 29an egindako osoko bilkura arruntaren akta ez da irakurri zinegotziek aldeztu aurretik haren fotokopia jaso dutelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktari oharpenik egin nahi dion. Inork ez du ezer esan eta bozketa egin ondoren akta aho batez onetsi da eta bertan izan ziren guztiek sinatu dute.

### **2.- Jakinarazpen ofizialak Osoko Bilkuraren ezagumendurako**

Honako jakinarazpen ofizialen informazioa eman da, osoko bilkurak horien berri izan dezan:

- 72E/2022 Ebazpena, azaroaren 28koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari gerentearena, "Euskara erabili eta sustatzeko toki-erakundeentzako laguntzak 2022" izeneko dirulaguntzen deialdia ebatzen duena.
- 289E/2022 Ebazpena, abenduaren 19koa, Toki Administrazio eta Despopulazioko zuzendari nagusiarena, Artziko Udalak "Eurovelo

Pasabide kanadiarrak" kontzeptupean aurkeztutako dokumentazioa onartzen duena eta 20.000,00 euro ordaintzen dituen.

- 749E/2022 Ebazpena, abenduaren 20koa, Lehendakaritza eta Gobernu Irekiko zuzendariarena, herritarren parte-hartzea sustatu eta bultzatzeko proiektuak garatzen dituzten toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdiaren ordainketa ebatzen duena.
- 247/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 12koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baita 3 espedienteren ordainketari uko egitea eta 37 espedienteri ordaintzea, guztira 531.920,780 €-ko zenbatekoarekin, Toki Erakundeek 2021-2022 kanpainan sustatutako baso-jardueretarako laguntzak, aktibo fisikoetan inbertsioak egiteko (4. neurria, baso-azpiegituretan egindako inbertsioak), 2014-2020 LGPren arabera.
- 165E/2022 Ebazpena, abenduaren 27koa, Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiarena, Artzibarko Hiriberri Kontzejuari lurralde-proiektu iraunkor bat garatzeko emandako dirulaguntza ordaintzeko baimena ematen duena.
- 668E/2022 Ebazpena, abenduaren 28koa, Vianako Printzea Erakundeko Kulturako zuzendari nagusiarena, Nafarroako Foru Komunitatean 2022an esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoak egiteko toki entitateentzako dirulaguntzen deialdia ebatzen duena.
- 242/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 9koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiarena, 9 espediente ordaintzeari uko egitea onartzen duena eta 95 espedienteri (1.386.818,45 € guztira) ordaintzen duena. Espediente horiek 2021-2022 kanpainan tokiko erakundeek sustatutako baso-jardueretarako laguntzak dira, baso-eremuen garapenean eta basoen bideragarritasunaren hobekuntzan inbertsioak egiteko. Neurria: 2014-2020 LGPko baso-ekosistemen ingurumen-balioa berreskuratzeko inbertsioak.
- 44E/2023 Ebazpena, urtarrilaren 23koa, Baso eta Ehiza Zerbitzuko zuzendariarena, beste unitate batzuek izapidetutako laguntzekin zerikusia duten baimenak egiteko baimen-eskaerari buruzkoa.

)

Artzibarko Udalak proiektuan zehaztutako katastro-poligonoetan eskatutako jarduerak baimentzea ebatzi du, basogintza- eta ingurumen-ondorioetarako soilik.

- 1068/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 30ekoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiarena, abeltzaintzako tokiko azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzen deialdiaren espedienteak ordaintzen dituena.
- 723/2022 Ebazpena, abenduaren 20koa, Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusiarena, 2022ko ekitaldiari dagokion Nafarroako toki entitateentzako urteko ekarpena onartzen duena, konpentsazio gisa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erreformaren ondoriozko bilketa galtzeagatik eta haren bigarren konponbidearen likidazioagatik.
- 232/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 2koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiarena, 40 espedienteri ingurumen-baimena eman eta 670.361,04 € ematen dizkiena baso-jardueretarako laguntza gisa; ingurumen-baimena, 2 espedienteri laguntza ematea ukatuz; eta espediente bati uko egitea onartzen duena. Espediente horiek guztiak toki-erakundeek sustatu zituzten 2022-2023 kanpainan, 2014-2020 LGPren aktibo fisikoetan inbertsioak egiteko (4. neurria: baso-azpiegituretako inbertsioak).
- 241/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 2koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiarena, 95 espedienteri ingurumen-baimena eta 1.661.804,79 euro ematen dizkiena baso-jardueretarako laguntza gisa; espediente bati laguntza ukatzea dakarren ingurumen-baimena; eta espediente bat artxibatzea. Horiek guztiak toki-erakundeek sustatu zituzten 2022-2023 kanpainan, baso-eremuen garapenean eta basoen bideragarritasuna hobetzeko inbertsioak egiteko, 8. neurria: Baso-ekosistemen ingurumen-balioa berreskuratzeko inbertsioak, 2014-2020 LGPan..
- 759/2022 Ebazpena, abenduaren 28koa, Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusiarena, transferentzia arrunten ezohiko funtsaren ordainketa aitortu eta agintzen duena, Ukrainako

gerrak Nafarroako toki entitateetan izan zituen ondorio ekonomikoak arintzeko.

### **3.- Alkatearen ebazpenak Osoko Bilkuraren ezagumendurako**

Alkateak honako ebazpenen inguruko informazioa eman du, osoko bilkurak jakin dezan:

- Alkatetzaren 31/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 1ekoa, Saraguetako 5 poligonoko 340 eta 341 lurzatietan isolatzaile termikoa jartzeko obra-lizentziaren aldeko txostena ematen duena.
- Alkatetzaren 32/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 23koa, euskara ikasteko 235 € ematen dituena.
- 33/2022 Ebazpena, alkateordearena, 2022ko abenduaren 23koa, musika-ikasketen arloan laguntzeko 597 € ematen dituena.
- 34/2022 Ebazpena, alkateordearena, 2022ko abenduaren 23koa, musika-ikasketen arloan laguntzeko 380,50 € ematen dituena.
- 35/2022 Ebazpena, alkateordearena, 2022ko abenduaren 23koa, musika-ikasketen arloan laguntzeko 411 € ematen dituena.
- 36/2022 Ebazpena, alkateordearena, 2022ko abenduaren 23koa, musika-ikasketen arloan laguntzeko 225 € ematen dituena.
- 37/2022 Ebazpena, alkateordearena, 2022ko abenduaren 23koa, musika-ikasketen arloan laguntzeko 225 € ematen dituena.
- 38/2022 Ebazpena, alkateordearena, 2022ko abenduaren 23koa, musika-ikasketen arloan laguntzeko 100 € ematen dituena.
- 39/2022 Ebazpena, alkateordearena, 2022ko abenduaren 23koa, ikasteko eta ikasleen garraiorako 500 € ematen dituena.
- Alkatetzaren 40/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 27koa, Azparrengo 17. poligonoko 6. lurzatian dagoen eraikina berritzeko aldeko txostena ematen duena.

)

#### **4. Azparrengo kontzejuak 2023an egin beharreko baso-lanak finantzatzeko egindako eskaera onartzea, hala badagokio.**

Azparrengo kontzejuak idazki bat jaso du, Artozkiko pista hobetzeko proiektua gauzatu ahal izateko dirulaguntza eskatuz.

Eraberritzeko kostu osoa 107.700 eurokoa da. Proiektuaren finantzazioa honakoa izango da:

- Nafarroako Gobernuak baso lanak egiteko emandako dirulaguntza: 39.692 euro.
- Oihan lotearen enkantea Azparrengo kontzejuaren aldetik: 20.000 euro.
- Azparrengo kontzejuaren ekarpena: 48.000 euro.

Ikusirik Kontzejuak ezin duela 48.000 euro ordaindu.

Ikusirik pista horren konponketa Artzibar osorako onuragarria dela eta Artzokiko sarbidea hobetuko lukeela.

Ikusirik gaur egungo alternatiba Ekizako Jaureritik pasatzea dela eta hori finka partikularra dela.

Ikusirik Azparrengo herri lurretako zati bat Artozkin dagoela.

Gaia eztabaidatu eta bozkatu ondoren, aho batez erabaki da:

LEHENIK: Azparrengo kontzejuaren proposamena onartzea eta kontzejuari laguntzea 25.000 euro emanaz.

BIGARREN: Artzibarko alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean hitzarmena sina dezan Azparrengo kontzejuarekin, maileguaren baldintzak zehaztuz.

HIRUGARREN: Azparrengo Kontzejuari erabaki honen berri ematea.

#### **5.- 2023ko baso jardueren proiektua eta hura arautuko duen plegua onartzea, hala badagokio.**

Ikusirik LUR GEROAKO Xabier Erbitik Artzibarko mendietan 2023an

baso lanak egiteko prestatu duen proiektua 2022/2023 dirulaguntzen deialdian aurkezteko.

Ikusirik proiektu horrek 105.743,76 euroko lizitazio-aurrekontua duela guztira, eta Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezartzen dela 200.000 eurotik beherako obren lizitazioa prozedura sinplifikatuaren bidez lizitatu daitekeela.

Ikusirik Lur Geroak sastrakak kentzeko eta Otsako pistako lanak egiteko zuzendaritza lanak egiteko 8.137,67 euroko (BEZa kanpo) eskaintza aurkeztu duela.

Ikusirik “2023an Artzibarko herri-mendian egin beharreko baso lanak” proiektua lizitatzeko baldintza plegua.

Ikusirik 232/2022 Ebazpena, abenduaren 2koa, Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Artzibarko Udalarari 57.142,65 euroko diru-laguntza ematen baitzaio 4. neurriko separata gauzatzeko, Otsako pista konpontzeko.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

**LEHENIK:** Artzibarko herri-mendian 2023an egin beharreko baso-lanak esleitzeko prozedura kudeatuko duen baldintza-plegua onartzea.

**BIGARREN:** “Artzibarko Baso Lanak 2022ko kanpaina” obraren zuzendaritza LUR GEROARI adjudikatzea, IFZ B31909781 eta helbidea Urbasa kalea 1 PK 31860 Irurtzun (Nafarroa), 8.137,67 eurotan (BEZa kanpo), sastrakak kendu eta Artozkiko pista konpontzeko.

Adjudikazio honetarako sistema faktura bidezkoa da, Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. Artikuluaren arabera.

**HIRUGARREN:** LUR GEROARI erabaki honen berri ematea.

**ZAZPIGARREN:** Kontratu hau diruz lagundu ahal izango du Nafarroako Gobernuak, eta, beraz, Lur Geroa SLk 2022ko abuztuan idatzitako proiektuari hertsiki lotuta gauzatuko dira lanak. Edozein aldaketa egiteko, aldezturik kontsultatu beharko zaio Obra Zuzendaritzari hark onar dezan. Era berean, ezarritako gehieneko epea amaitu baino lehen gauzatu beharko da kontratu osoa, eta, bete ezean, Udalak 2/2018 Foru Legean jasotako zehapen egokiak ezarri ahal izango ditu.

## **6.- 2023ko sastrakak kentzeko lanak adjudikatzea, hala badagokio**

)

Baso-sektorea, oro har, eta baso-lanak, bereziki, funtsezko jardueratzat jotzen dira osasun publikoa bermatzeko, klima-aldaketaren ondorioak arintzen dituztelako, gizarteari ondasun berriztagarri garrantzitsuak ematen dizkiotelako (energia, elikagaiak) eta ongizate fisiko eta psikologikorako hain funtsezkoak diren aire zabaleko jarduerak garatzea ahalbidetzen dutelako.

Ikusirik LUR GEROAKO Xabier Erbitik Artzibarko mendietan 2023an baso lanak egiteko prestatu duen proiektua 2022/2023 dirulaguntzen deialdian aurkezteko.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Legearen 81. artikuluan zenbateko txikiagoko kontratuen araubide berezia arautzen dela eta horren arabera alde zuzenetik kreditua erreserbatuta egotea eta faktura aurkeztea baino ezin dela eskatu

Ikusirik 2023ko ekitaldiko aurrekontu ekonomikoan, 1722 6310001 Baso lanak 2023 partidan, kontratu honetatik eratorritako betebeharreri aurre egiteko kreditu nahikoa dagoela.

Ikusirik 242/2022 Ebazpena, abenduaren 30ekoa, Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Artzibarko Udalarari 25.079,88 euroko diru-laguntza ematen baitzaio 8. neurriko separata gauzatzeko, abeltzaintzako sastrakak kentzekoa.

Ikusirik Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva Maria Cristina S.C.-k (Zibur) 2022ko urtarrilaren 29an aurkeztu zuten eskaintza 7.169,22 euro gehi BEZa dela.

Ikusirik Lur Geroak sastrakak kentzeko eta Otsako pistako lanak egiteko zuzendaritza lanak egiteko 8.137,67 euroko (BEZa kanpo) eskaintza aurkeztu duela.

Aho batez erabaki da:

**LEHENIK:** Lur Geroako Xabier Erbitik 2022ko abuztuan idatzitako proiektua onartzea.

**BIGARREN:** Abeltzaintzako sasi-garbiketak egiteko 2022ko 8. neurriko baso-lanak egiteko kontratua Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva Maria Cristina S.C.ri esleitzea. (Zibur), helbidea Aurizberrin duena, 7.169,22 eurotan (BEZa kanpo).

**HIRUGARREN:** Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva Maria Cristina S.C.ri (Zibur) erabaki honen berri ematea eta aldi berean oroitaraztea lanak 2022o irailaren 15a baino lehen bukatu eta fakturatu behar direla.

**LAUGARREN:** “Artzibarko Baso Lanak 2022ko kanpaina” obraren zuzendaritza LUR GEROAri adjudikatzea, IFZ B31909781 eta helbidea Urbasa kalea 1 PK 31860 Irurtzun (Nafarroa), 6.857,43 eurotan (BEZa kanpo), sastrakak kendu eta Otsako pista konpontzeko. Adjudikazio honetarako sistema faktura bidezkoa da, Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. Artikuluaren arabera.

**BOSGARREN:** LUR GEROAri erabaki honen berri ematea.

**SEIGARREN:** Kontratu hau diruz lagundu ahal izango du Nafarroako Gobernuak, eta, beraz, Lur Geroa SLk 2021eko abuztuan idatzitako proiektuari hertsiki lotuta gauzatuko dira lanak. Edozein aldaketa egiteko, aldeztu aurretik kontsultatu beharko zaio Obra Zuzendaritzari hark onar dezan. Era berean, ezarritako gehieneko epea amaitu baino lehen gauzatu beharko da kontratu osoa, eta, bete ezean, Udalak 2/2018 Foru Legean jasotako zehapen egokiak ezarri ahal izango ditu.

## **7. Nafarroa Oinezari laguntza ematea, hala badagokio**

Ikusirik Etxarri Aranzko Andra Mari Ikastolak idatzia aurkeztu duela 2023ko Nafarroa Oinez festa Etxarri Aranatzan egingo dela esanez eta ekarpena ekonomikoa eskatuz. ETXARRI ARANTZ Udalaren 2022ko ekitaldirako aurrekontu orokorrean 250 euroko dirulaguntza izenduna esleitu dela kontuan hartuz, bertaratutakoek aho batez erabaki dute:

LEHENIK: 2023ko Nafarroa Oinezi 250 euroko diru-laguntza ematea.

BIGARREN: Andra Mari Ikastolari erabaki honen berri ematea.

*Carlos Oroz Torrea alkatea dio ez duela ondoko gaiaren eztabaidan eta bozketan parte hartuko gaiarekin interesa zuzena baitu eta, hortaz, abstenitu behar baita, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 76. Artikuluaren, Tokiko Entitateen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 96. Artikuluaren eta Sektore Publikoaren Arautegi Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. Artikuluaren arabera; Carlos Oroz Torrea alkatea bilkuratik atera da eta gaiari ekin zaio*

**8. Artzibarko Hiriberrin Artzibarko udal-planaren zehaztapen egituratzaileen aldaketa, Araceli Oroz Torreak sustatua, behin-behinean onartzea, hala badagokio.**

)

Ikusirik Araceli Oroz Torreak, Hiriberrin, Artzibarko Udal Planeko 13. Poligonoko 34. Lurzatiaren determinazio egituratzaileak aldatzeko dokumentazioa aurkeztu duela. Hori guztia Eduardo Echeverri Tapiak egindako txostenaren arabera.

Ikusirik Artzibarko Udalak 2022ko maiatzaren 31n egin zuen ohiko osoko bilkuraren hasierako onespina, eta jendaurrean jarri zela 2022ko ekainaren 23ko 124 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez.

Ikusirik Lurralde Antolamendu, Lurralde eta Paisaiako Zuzendaritza Nagusiaren txosten orokorra, 0009-OT04-2022-00021 espediente-kodea duenak.

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abuztuaren 4ko 765/2022 Ebazpenaren bidez, Araceli Oroz Torreak sustatutako "Artzibarko Hiriberriko 34. poligonoko 13. partzelan Artzibarko Udal Planaren aldaketa egituratzailearen" ingurumen-txosten estrategikoa egiten dela, eta txosten horren arabera, ez dela ingurumenean eraginik sortzen.

Ikusirik 2023ko urtarrilaren 23ko Nasuvinsaren txostenean honakoak aipatzen direla:

### **3.- AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN ANALISIA. KONTSIDERAZIOAK.**

*Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egindako txosten orokorra ikusita, sustatzaileak beste dokumentu tekniko eta bektorial bat aurkeztu du, txosten orokorreko gogoetetara egokitzeko.*

#### *Dokumentu tekniko osoa aldatua*

*Dokumentuak adierazten du lursailek ibilgailuentzako sarbide irmoa dutela lurzatiaren perimetroaren zati handi batean, baita lurzatiaren hiri-zatian hornidura, saneamendua eta energia elektrikoaren hornidura ere. Udal Planeko **azpiegituren eta zerbitzuen** planoak sartu dira. Hiri-lurzoruari gehitu beharreko azalera 572,19 m<sup>2</sup>-koa da.*

***Zehaztapan egituratzaileei** dagokienez, dokumentuan lurzoru mota adierazten da: hiri-lurzorua eta erabilera orokorra: bizitegi-erabilera.*

***Zehaztapan xehatuei** dagokienez, proposamena AD-006 izeneko zuzkidura-jarduketa gisa identifikatzen da, zeinaren eremua indarrean dagoen 006 unitatea eta aldatu/handitu beharreko lursailak diren. Eraikinaren kanpoko gehieneko lerrokadurak adierazten dira, eta gehieneko eraikigarritasuna 2 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> da. Eraikigarritasun hori lerrokadurek zehaztutako*

*oinplanoko okupazio-azalerari aplikatu dakioke, ez lurzatiaren azalera osoari, txosten globalean interpretatu den bezala. Dokumentazio grafikoaren arabera, eraikigarritasuna handitu egiten da, eta 4x9 m neurriak hartzen dituen gorputz bat eraikitzeko aukera ematen du. (36 m<sup>2</sup>). Gainerako zehaztapenak mantendu egin dira.*

*Azken bost urteetako lurren titularren nortasuna sartu da dokumentuan, aldaketaren sustatzailearekin batera.*

*Dokumentu teknikoaren dokumentazioari eta 253/2019 Foru Dekretura egokitzeari dagokienez, egiaztatu ahal izan da egungo egoeraren planoak jarri direla informazio- eta justifikazio-dokumentazioan, eta dokumentazio bektoriala bat datorrela dekretu horrekin, nahiz eta ez den erantsi esleitutako SIUN kodea (110767).*

#### **4.- TRAMITAZIOA**

*Txosten honen xede den espedientea **aldaketa egituratzailetzat** jotzen da, eta 1/2017 Foru Dekretuaren 71. eta 77.2 artikuluetan adierazitako prozeduraren arabera izapidetzen da.*

*Udalak aldaketa onetsi zuen hasiera batean eta jendaurrean jarri zuen. Lurraldea, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak dagokion txosten globala eman zuen.*

*Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proposamena egokitzen eman du.*

*Zuzendutako dokumentua ikusita, izapidetzaileekin jarraitzea dagokio:*

*- Udalak hasiera batean onartzea.*

*- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentura igortzea, behin betiko onetsi dezan.*

*Ikusirik Araceli Oroz Torreak sustatu duen egiturazko zehaztapenen aldaketa puntualerako espedientea zertan den.*

*Bertan dauden adostasunez, legeak eskatzen duen gehiengoa osatzen baitute, erabaki da:*

**LEHENIK:** Araceli Oroz Torreak, Hiriberrin, Artzibarko Udal Planeko 13. Poligonoko 34. Lurzatiaren sustatu dituen determinazio egituratzaileak aldatzea hasiera batean onartzea, Eduardo Echeverri Tapiak 2022ko abuztuan egindako eta geroago zuzendutako txostenaren arabera.

)

**BIGARREN:** 253/2019 Foru Dekretua betetzeko izapidetutako espedientea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentura igortzea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

**HIRUGARREN:** Erabaki hau sustatzaileari jakinaraztea.

**9. Hala badagokio, Lur Geroaren faktura onartzea, 2022-2023ko abeltzaintzako azpiegituren proiektua idazteari buruzkoa.**

Ikusirik 2022ko azaroan aurkeztu behar izan dela 2023an gauzatu behar den abeltzaintzako tokiko azpiegituretarako proiektua.

Ikusirik Lur Geroa Ingeniaritza eta Ingurumeneko Ikerketak izeneko enpresak lehenago ere Artzibarren lan egin duela eta ibarreko beharrak ezagutzen dituela.

Artzibarko Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:

Lur Geroaren 2022ko abenduaren 1eko 126/22 faktura onartzea, 3.878,07 euroko zenbatekoarekin (BEZik gabe), 2023an Artzibarren egin beharreko abeltzaintzako azpiegituren proiektua idazteagatiko ordainsari gisa.

**10.- Alkatetzaren txostenak**

Alkateak honako informazioa eman du:

- Nagoreko UGPSri buruzko bileran desinfekzio guneaz, eraikigarritasuna murrizteaz, pinudia besterentzea pasealekua egiteko, eta bestelako gaiez hitz egin zen.
- Kontzejuekin izandako bileran kontribuzioa, udal plana, katastroa eta Interneti buruz aritu ziren.
- Jakinarazi da Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean hitzarmena sinatu dela Ibarreko Udal Plan berria egiteko.

**11.- Kide anitzeko organoetako eta bestelako ordezkarien informazioa**

Maria Isabel Cañada zinegotziak hainbat bilerei buruzko informazioa eman du:

- Pirinioko Mahaia, martxoaren 24-26an topaketa antolatuko da gastronomia, kultura, eta antzekoen inguruan.
- Otsailaren 14an prentsaurrea egingen da Pirinioaren despulazioaz hitz

egiteko.

- Irati Hondakinen Mankomunitateak jasangarritasun feria irailean egin ordeztu agian maiatzaren eginen da.

Francisco Javier Erro Ramirez zinegotziak jakinarazi du Orreaga Musika Eskolako batzarrean jakinarazi zela Artzibarko 5 ikasle daudela eta Udalaren ekarpena 1990 eurokoa izanen dela.

Garoa Gartzandia zinegotziak jakinarazi du otsailaren 18an hitzaldia izanen dela udaletxean.

Juan Jose Echavarren zinegotziak jakinarazi du Izaga Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak bilera egin zuela eta bertan aurrekontuaz hitz egin zela.

Javier Diez Huguet zinegotziak aipatu du aukera dagoela pertsona batek antzinako materiala eta tresnak uzteko.

Carlos Iriarte Iraceburu zinegotziak jakinarazi du Uritzen ondoko harkaitz batean sasi garbiketak egin direla eta eskalatzeko bidea egin dela inolako baimenik gabe.

## **12.- Eskaerak eta galderak.**

Ez dago

Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez onetsitako urgentzia aitortu ondoren, honako gaiak sartu dira:

### **----Artzibarko Uritzen Pedro Ibarra Cervantesek sustatutako Artzibarko udal-planaren zehaztapen egituratzaileen aldaketa onartzea, hala badagokio.**

Ikusirik Pedro Ibarra Cervantesek, Uritzen, Artzibarko Udal Planeko 23. Poligonoko 50. Lurzatiaren determinazio egituratzaileak aldatzeko dokumentazioa aurkeztu duela. Hori guztia Eduardo Echeverri Tapiak 2023ko urtarrilean egindako txostenaren arabera.

Ikusirik Artzibarko Udalak 2022ko maiatzaren 31n egin zuen ohiko osoko bilkuraren hasierako onespina, eta jendaurrean jarri zela 2022ko uztailaren 1eko 130 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez.

)

Ikusirik Lurralde Antolamendu, Lurralde eta Paisaiako Zuzendaritza Nagusiaren txosten orokorra, 0009-OT04-2022-00022 espediente-kodea duenak.

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abuztuaren 4ko 764E/2022 Ebazpenaren bidez, Pedro Ibarra Cervantesek sustatutako "Urizko 23. poligonoko 50. partzelan Artziko Udal Planaren aldaketa egituratzailearen" ingurumen-txosten estrategikoa egiten dela, eta txosten horren arabera, ez dela ingurumenean eraginik sortzen.

Ikusirik 2023ko urtarrilaren 30eko Nasuvinsaren txostenean honakoak aipatzen direla:

### *3.- AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN ANALISIA.*

*Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egindako txosten orokorra ikusita, sustatzaileak beste dokumentu tekniko eta bektorial bat aurkeztu du, txosten orokorreko gogoetetara egokitzeke.*

*Txosten orokorraren arabera, proposamena lurralde-antolamenduko tresnetara egokitzen da, eta ez da ikusten sektorekako eraginik. Justifikatutzat jotzen da planeamendu-aldaketa, non hiri-lurzoru finkatuaren kategoria proposatzen baita hiri-lurzoruari erantsitako lurzoruan.*

*Aldaketa zuzkidura-jarduketa gisa planteatzen da. Bertan, lurzatiaren eraikigarritasuna handitzea proposatzen da, partzela eraikigarriaren azalerari aplikatutako gehieneko eraikigarritasuna 2m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>-koa izanik (gehieneko lerrokaduren barruan), nahiz eta dokumentuak adierazten duen sustatzailearen asmoa dela lurzoru libre pribatura bideratzea hiri-lurzoruan sartutako lurzoria. Aprobetxamenduaren gehikuntzaren % 10 Udalarari laga beharko zaio, eta horren ordezkurutzan eman ahal izango da.*

*Adierazi behar da, oro har, bai unitate morfologikoetan bai egikaritze-unitateetan, Udal Planak ezartzen duela aplikatutako eraikigarritasuna, dokumentazio grafikoan jasotako eraikuntzaren lerrokadura-baldintzek baldintzatutako okupazio-baldintzak kontuan hartuta, araudi partikularreko fitxetan adierazten den bezala.*

*Aurkeztutako dokumentuak, zehaztapen xehatuaren artean, lursail mugakidera (48. partzela) bereizi ondoren birsailkatutako lurzorua jasotzen du.*

*Dokumentuak eraikuntzaren gehieneko lerrokadura adierazten du, errepidearen ertzetik 18 metrora.*

*Dokumentua osatzen da bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoaren memoriarekin eta genero-eraginaren ebaluazioarekin, eta aurreko bost urteetan eraginpeko finkaren gaineko beste eskubide batzuen jabe edo titularren nortasuna jasotzen da.*

*Txosten orokorrak tokiko zuzkidurako lagapenen irudikapen grafikoa eskatzen zuen. Idatzizko dokumentazioan aipatzen zen, baina ez zen planoetan adierazten.*

*Dokumentuak justifikatu egiten du, 55.7 artikuluan oinarrituta, Kalearen funtzionaltasunaren ikuspegitik, nahikotzat jotzen dela modu naturalean egiten den zabalpena, lursailaren hegoaldeko ertza eremuaren ekialderantz errespetatuz. Lurzoru urbanizaezinean trazatutako kaleak zabaltzeko aurreikuspen-lerroen diseinua kasuan kasuko lurzoruak garatzean gauzatuko dela pentsatzekoa da, dagokion plangintza onartu ondoren.*

#### **4.- TRAMITAZIOA**

*Txosten honen xede den espedientea aldaketa egituratzailetzat jotzen da, eta 1/2017 Foru Dekretuaren 71. eta 77.2 artikuluetan adierazitako prozeduraren arabera izapidetzen da.*

*Udalak aldaketa onetsi zuen hasiera batean eta jendaurrean jarri zuen. Lurraldea, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak dagokion txosten globala eman zuen.*

*Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proposamena egokitzen eman du.*

*Zuzendutako dokumentua ikusita, izapidearekin jarraitzea dagokio:*

- Udalak hasiera batean onartzea.*
- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentura igortzea, behin betiko onetsi dezan.*

Horren arabera Pedro Ibarra Cervantes jaunak sustatutako egiturazko zehaztapenen aldaketa puntualerako espedientea aurkeztu da.

Bertan daudenen adostasunez, legeak eskatzen duen gehiengoa osatzen baitute, erabaki da:

**LEHENIK:** Uritzen, Artzibarko Udal Planeko 23. Poligonoko 50. Lurzatian sustatutako determinazio egituratzaileak aldatzea hasiera batean onartzea,

)

Eduardo Echeverri Tapiak 2023ko urtarrilean egindako eta geroago zuzendutako txostenaren arabera.

**BIGARREN:** 253/2019 Foru Dekretua betetzeko izapidetutako espedientea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentura igortzea, honako txostenarekin batera, behin betiko onesteko.

**HIRUGARREN:** Erabaki hau sustatzaileari jakinaraztea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hogeita batak direnean, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.